

# JARDUKETA-PRINTZIOAK

Haurrei eta nerabeei lotutako sustapen-, prebentzio- arreta- eta babes-jarduerek printzipio hauetara egokitu behar dute, besteak beste:

- 1 ESKUBIDEAK:** Ardatz nagusia da. Jarduketa guztien erdigunean jarri behar dira haurrak eta nerabeak eskubideen subjektutzat aitortzea eta beren banakako eta taldeko eskubideak errespetatzea, sustatzea eta defendatzea, beraien bizitzako eta harremanetako testuinguru guztietan, erabiltzen dituzten zerbitzuetan eta esku hartzen duten esparruetako prozeduretan.
- 2 IRISGARRITASUNA:** Irispidea eragozten edo zailtzen duten oztopoak kendu beharrezkoak diren arrazoizko egokitapen eta doikuntzak egin, eta laguntzeko tresna edo produktuak jarri behar zaizkie eskura.
- 3 EKITATEA:** Politika guztiak sektore guztien arteko ikuspegi batekin diseinatu beharko dira.
- 4 ARRETA KOMUNITARIOA:** Hazkuntza eta hezkuntza erantzukizun kolektiboak dira, eta bietan parte hartu behar dute, familiez eta hezkuntza-eragileez gain, komunitateko gizarte-agente guztiek.
- 5 HAURTZAROAREN ZEHARKOTASUNA POLITIKETAN:** Politika publiko guztietan haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko ikuspegia sartu beharra dago, baita eskubide horiei kalte egin diezaieketen edo haiek urratu ditzaketen egoeren aurkako prebentzio-, arreta- eta babes-ikuspegia sartu beharra ere.
- 6 PARTAIDETZA ETA HERRITARTASUN AKTIBOA:** Haurrek eta nerabeek, bakoitzaren adinaren eta heldutasunaren arabera, eragiten dieten arazoak ezagutu eta konponbideak aurkitzen laguntzeko dute gaitasuna aitortzen da; eta hortaz, gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa, jasangarriagoa eta demokratikoagoa eraikitzen aktiboki parte hartzekoa ere bai.
- 7 POLITIKA INTEGRALAK:** Administrazio publikoek ziurtatu egin behar dute, bakoitzak bere eskumen-eremuan, haur eta nerabeen eskubideak erabat egikaritzen direla.
- 8 ERAKUNDE ETA SEKTORE ARTEKO PLANGINTZA:** Politiken izaera integrala eraginkortasunez ezartzeko, definitu beharko dira helburuak, baliabide ekonomikoak, adierazle geografiko eta populazio- eta gizarte-adierazleak, bai eta zeharkakotasunaren eta diziplinartekotasunaren ikuspegitik hartu beharreko neurriak ere.
- 9 PROFESIOALEN ESPEZIALIZAZIOA:** Haur eta nerabeen eskubideen eta ongizatearen arloko haierako eta etengabeko prestakuntza espezializatua bermatu behar zaie haien ongizatean eragina duten politikak eta plangintzak diseinatzen parte hartzen dutenei eta beren lan-jardunean haiekin ohiko harremana duten profesionalei.
- 10 GURASOTASUN POSITIBOA :** Neurriak hartu behar dira, sustatzeko gurasoen, legezko ordezkarien edo harreragile eta zaintzaileen portaerak oinarrian izan dezan adingabearen interes gorena, eta pertsona adingabea ingurune afektibo eta indarkeriarik gabekoan haz dadin.
- 11 SUSTAPEN, PREBENTZIO ETA DETEKZIO GOIZTIARRA:** Bultzatu egin behar dira haur eta nerabeen ongizatearen alde egiteko eta haien eskubideak eraginkortasunez gauzatzeko sustapen-jarduketak; hori mugatu, eragotzi edo kaltetu dezaketen egoerei edo eskubideak urratzen dituztenei aurre hartzeko ekintzak; eta, geertatuz gero, egoera horiek goiz detektatzekoak, bereziki haurrak eta nerabeak edozein indarkeria-motaren biktimia izatea edo babesgabetasun-arrikusn edo -egoeran egotea.
- 12 INFORMAZIOA EGOKI TRATATZEA:** Bermatu egin behar da administrazio publikoek eta informazio konfidentziala eskuratzen duten pertsonak eta gizarte-hedabideek informazioaren intimitatea eta konfidentzialtasuna errespetatzen dituztela.
- 13 GENERO-IKUSPEGIA:** Administrazio publikoek, adingabeentzako politiketan eta ekintzetan, sistematikoki kontuan izan beharko dituzte emakumeen eta gizonen egoerak, baldintzak, jomugak eta beharrizanak, maila guztietan eta fase guztietan.
- 14 JAKINTZA ETA EBALUAZIOA:** Gizarte-errealitatea eta bere bilakaera zorrotzasunez ezagutu behar dira. Aplikaturako politikak eta diseinatutako plangintzak ebaluatu egin behar dira, haien ezarpen-maila eta hartutako neurrien efizientzia-maila baloratzeko.